Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Digitalki Sinatua
Firmado Digitalmente
DONOSTIA, 2022KO MARTXOAK 29.
SAN SEBASTIAN, 29 DE MARZO DE 2022

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

Esp/Exp.: 2021/092

INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁN EN LA CONTRATACIÓN DE LA CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN CONTRA LAS VIOLENCIAS MACHISTAS.

1. XEDEA

Kontratu honen xedea da Donostiako Udaleko Berdintasun Sailak diseinatutako indarkeria matxisten aurkako sentsibilizazio-kanpaina gauzatzeko beharrezkoak diren hornidura eta zerbitzuak.

1. OBJETO

Son objeto del presente contrato los suministros y servicios necesarios para llevar a cabo la campaña de sensibilización contra las violencias machistas diseñada por el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Donostia.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Donostiako Udalak indarkeria matxisten aurkako sentsibilizazio-kanpaina bat jarriko du abian 2023. urteko jai esanguratsuenetan, garai horietan areagotu bait daitezke aisialdiarekin lotutako espazio publikoan neska eta emakume gazteen aurkako erasoak.

2. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

El Ayuntamiento de San Sebastián va a poner en marcha una campaña de sensibilización contra las violencias machistas en las fiestas más significativas del año 2023, siendo estas épocas cuando se pueden agravar las agresiones hacia las niñas y mujeres jóvenes en los diferentes espacios públicos relacionados con el ocio.

Kanpaina hori egiteko, kontratuaren xedea sorta hauetan banatzen da:

I. sorta: kanpainako materialen diseinu grafikoa eta inprimaketa.

II. sorta: kanpainaren edukiak transmititu, informatu eta sentsibilizatzea.

III. sorta: instalazioak.

Para la realización de la campaña el objeto del contrato se divide en los siguientes lotes:

Lote I: Diseño gráfico e impresión de los materiales de la campaña.

Lote II: Transmisión, Información y sensibilización sobre los contenidos de la campaña.

Lote III: Instalaciones.

BTAren II. eranskinean, zenbatespen huts gisa

A modo orientativo, en el Anexo II se detallan las

Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

zehazten dira 3 sortentzako urteko hornidura/zerbitzu unitateak, eta Udalak ez du konpromisorik hartzen. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 33. xedapen gehigarriaren arabera, entregen eta emandako zerbitzuen guztizko kopurua Udalaren beharren araberakoa izango da.

previsiones de necesidades anuales para los tres lotes. Las unidades de suministro o servicios especificadas tienen un carácter indicativo, sin que suponga un compromiso por parte del Ayuntamiento. Los suministros y servicios definitivos necesarios serán definidos por el Departamento de Igualdad.

2.1. SORTA BAKOITZAREN EZAUGARRI ZEHATZAK:

2.1. CARACTERÍSTICAS ESPECÍFICAS DE CADA LOTE:

I. SORTA: kanpainako materialen diseinu grafikoa eta inprimaketa	**LOTE I: Diseño gráfico e impresión de los materiales de la campaña.**
Enpresa esleipendunak eginkizun hauek izango ditu: - Irudi grafikoa egitea eta kanpainarako materialak ekoiztea. Lehenengo sortan, enpresa esleipendunak diseinu grafikoa egin beharko du, hau da, transmititu nahi diren edukiak islatuko dituen irudia. Diseinuak modernoa, egungoa eta xede-publikoari zuzendutakoa izan behar du, kanpainako mezuak ahalik eta hoberen komunikatzeko asmoz.	La empresa adjudicataria deberá realizar las siguientes funciones: - Realizar la imagen gráfica y producir los materiales para la campaña. En el primer lote la empresa adjudicataria deberá realizar el diseño gráfico, es decir, la imagen que va a reflejar los contenidos que se quieren transmitir. El diseño debe ser moderno, actual y dirigido al público objetivo con la intención de llegar a comunicar lo mejor posible los mensajes de la campaña.
Hori guztia egiteko, kontuan hartu beharko dira zerbitzu sustatzaileak aldez aurretik zehaztuko dituen edukiak eta zabaldu beharreko mezuak.	Todo ello se deberá realizar teniendo en cuenta los contenidos y mensajes que se han de lanzar y que serán previamente definidos por el servicio promotor.
Era berean, enpresa esleipendunak komunikazio-euskarri hauek eskaini beharko ditu. Inprimaketa	A su vez, la empresa adjudicataria suministrará los siguientes soportes comunicativos, siendo de su

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordeen - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

hala nola materialak bere kontura izango dira.

Hauek dira hornitu beharreko komunikazio-euskarriak:

- Neska eskuorria: neska gazteei zuzendutako paper birziklatuko eskuorria, edukia/testua duena. Eskuorriak 600 hitzeko gutxieneko eta 1000 hitzeko gehieneko edukia izango du. Testu hau zerbitzu sustatzaileak landuko du eta enpresa esleipendunari emango dio. Formatuari dagokionez, formatu original bat eskatzen da, gazteen beharrei erantzun ahal izateko.
- Mutila eskuorria: mutil gazteei zuzendutako paper birziklatuko eskuorria, edukia/testua duena.Eskuorriak 600 hitzeko gutxieneko eta 1000 hitzeko gehieneko edukia izango du. Testu hau zerbitzu sustatzaileak landuko du eta enpresa esleipendunari emango dio. Formatuari dagokionez, formatu original bat eskatzen da, gazteen beharrei erantzun ahal izateko.
- Herritarrentzako eskuorria: paper birziklatuko euskarria, herritarrei zuzendutako edukia/testua duena. Liburuxka sinpleagoa izango da, mezua sinpleagoa eta ez delako hain luzea izango. Eskuorriak 400 hitzeko gutxieneko edukia eta 700 hitzeko gehieneko izango du. Testu hau zerbitzu sustatzaileak landuko du eta enpresa esleipendunari emango dio.

- Ostalaritzarako eskuorria: paper birziklatuko euskarria, ostalaritzari zuzendutako edukia/testua duena. Liburuxka sinpleagoa

cuenta los materiales como la impresión.

Los soportes comunicativos a suministrar son los siguientes:

- Folleto chica: folleto en papel reciclado con contenido/ texto dirigido a chicas jóvenes. Será un folleto de una extensión mínima de 600 palabras y máxima de 1000 palabras, con un texto desarrollado que será facilitado a la empresa adjudicataria por el servicio promotor. En cuanto a formato se pide un formato original que pueda responder a las necesidades del colectivo joven.

- Folleto chico: folleto en papel reciclado con contenido/ texto dirigido a chicos jóvenes. Será un folleto de una extensión mínima de 600 palabras y máxima de 1000 palabras, con un texto desarrollado que será facilitado a la empresa adjudicataria por el servicio promotor. En cuanto a formato se pide un formato original que pueda responder a las necesidades del colectivo joven.

- Folleto para la ciudadanía: soporte en papel reciclado con contenido/ texto dirigido a la ciudadanía. Será un folleto más simple para facilitar su buzoneo y porque el mensaje será más sencillo. Será un folleto de una extensión mínima de 400 palabras y máxima de 700 palabras, con un texto desarrollado que será facilitado a la empresa adjudicataria por el servicio promotor.

- Folleto para hostelería: soporte en papel reciclado con contenido/ texto dirigido a la hostelería. Será un folleto más simple para facilitar su reparto y

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

izango da, mezua sinpleagoa delako eta banaketa errezteko. Eskuorriak 600 hitzeko gutxieneko edukia eta 1000 hitzeko gehieneko izango du. Testu hau zerbitzu sustatzaileak landuko du eta enpresa esleipendunari emango dio. Formatuari dagokionez, formatu original bat eskatzen da, ostalaritzako kolektiboaren beharrei erantzun ahal izateko.

porque el mensaje será más sencillo. Será un folleto de una extensión mínima de 600 palabras y máxima de 1000 palabras, con un texto desarrollado que será facilitado a la empresa adjudicataria por el servicio promotor. En cuanto a formato se pide un formato original que pueda responder a las necesidades del colectivo de hostelería.

- Paperezko ezpainzapi txikiak, tissue berziklatuzkoa, 85 mm-koa (zabalera) x 120 mm (luzea), 50 mm-ko aurreko tolestura.

- Servilletas pequeñas de papel, de tissue reciclado, de 85mm (ancho) x 120 mm (largo), pliegue delantero de 50 mm.

- Paperezko ezpainzapi handiak, tissue berziklatuzkoa, 150mm x 150mmkoak.

- Servilletas grandes de papel, de tissue reciclado , de 150mm x 150mm.

- Arretarako telefonoen papel birziklatuko informazio-txartelak

- Tarjetas informativas de teléfonos de atención de papel reciclado.

- Sustapen-materiala (txapak eta poltsak).

- Material promocional (chapas y bolsas)

- Udalerako olana iraunkorra: 6 metro luze eta metro bat zabal.

- Lona permanente para Ayuntamiento, de 6 metros de largo por un metro de ancho.

- Jaimarako 3 olana (5 m x 5 m-ko azalerako jaimaren gutxi gorabeherako neurriak). 5 m x 3 m-ko olana bakoitza. Neurriak instalazio iraunkorraren behin betiko ereduaren neurriei lotuta daude. Enpresa esleipenduna arduratuko da olanak jartzeaz. 3 olanak jaimaren kanpoaldean jarri beharko ditu.

- 3 lonas para jaima (medidas orientativas de la jaima 5 m x 5m de superficie). Cada lona medirá 5 m x 3 m, si bien las medidas definitivas están sujetas al modelo definitivo de la instalación permanente. La empresa adjudicataria se encargará de la colocación de la lona, debiendo ir las tres en el exterior de la jaima.

- Atoiaren kanpoko errotuluak, eta haiek jartzea. I eranskinean zehazten diran errotulu hauen neurriak. Enpresa esleipenduna arduratuko da

- Rótulos de remolque para el exterior y colocación de las mismas. Se adjuntan en anexo I las medidas de los rótulos y del remolque. La empresa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobierno Harremanak - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

rotulo hauek jartzeaz.

- Euskarri fisikoaren diseinua
- Euskarri digitalaren diseinua: https://www.ezezetzda.eus web-orriaren diseinua eta mantentze-lanak, web-domeinuaren berrikuntza, sare sozialetarako diseinua eta publizitate digitalaren diseinua

Donostia Berdintasuna sentsibilizazio-kanpainaren euskarrien gutxieneko kalitatea bermatzeko, honako ezaugarri hauek zehazten dira, enpresa esleipendunak bete beharreko gutxieneko teknikoak izango direlarik:

1) Material inprimatuari dagokionez (eskuorriak):

• 500 aletik beherako kopuruetarako: inprimaketa digitala paper matean edo semimatean egingo da, gehienezko 125g/m2 gramajea izango du eta tinten erabilera ElectroInk lehenetsiko da.

• 500 eta 10.000 unitate arteko kantitateetarako: paper matea edo semimatean egingo da, gehienez 125g/m2-ko gramajearekin eta, offset kuatrikromia inprimatuko da.

• 10.000 unitate baino gehiagotarako, paper matea edo semimatean egingo da, gehienez 115g/m2 gramajearekin eta offset kuatrikromia inprimaketa.

• Ez dira tinta metalizatuak edo fluoreszenteak erabiliko

• Diseinuak inprentan erabilitako orrialde kopuru optimoaren arabera doituko du edukia.

adjudicataria se encargará de la colocación de los mismos.

- Diseño del soporte físico
- Diseño de soporte digital que incluye: Diseño y mantenimiento de la página web https://www.ezezetzda.eus, renovación del dominio web, diseño para redes sociales y diseño de publicidad digital

Con el objetivo de garantizar una calidad mínima de los soportes de la campaña de sensibilización del Departamento de Igualdad se definen las siguientes características, que serán mínimos técnicos a cumplir por la empresa adjudicataria:

1) En cuanto al material impreso (los folletos):

- Para cantidades que no superen los 500 ejemplares: Se realizará la impresión digital en papel mate o semimate de gramaje máximo de 125g/m2 y uso preferente de tintas ElectroInk.
- Para cantidades entre 500 y 10.000 unidades: Se realizará en papel mate o semimate de máximo de 125g/m2 e impresión cuatricromía offset.
- Para más de 10.000 unidades. Se realizarán en papel mate ó semimate de máximo de 115g/m2 y se realizará la impresión cuatricromía offset.

- No se usarán tintas metalizadas o fluorescentes
- El diseño ajustará el contenido al número de páginas óptimo usado en la imprenta.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

• Euskarriak ez dira plastifikatuko, eta azalak babestuz gero, oinarri urtsuko berniza erabiliko da.

2) Atoiaren binilatze-errotulazioa: ibilgailuentzako 0,055mm-ko binilo urtuarekin egingo da, 0,030mm-ko ijezketarekin, latex-tintekin imprimatua.

3) Zapiak:

• Modelo txikia: bi geruza. Pantone tinta batean inprimatua.

• Modelo handia: geruza bat. Pantone tinta batean inprimatua.

4) Udalerako eta jaimarako lonak. Ondorengo bi era hauetan egin ahal izango da:

• Mikroperforatu gabe: PVC Frontlit 510 gr. FR, perimetroko errefuerzoarekin, botoi-zulo metalikoekin, 1440dpira inprimatua, greenguard tinta uvi ziurtatuak edo antzekoa.

• Mikorzulatua: PVC microperforada 350 gr. FR B1/ M2, perimetroko erreforzuarekin, botoi-zulo metalikoekin, tinta uvi ziurtatuekin greenguard edo antzekoarekin.

5) Promozio-materiala

Sustapen-materiala ez da modu bateratuan enbalatuta egongo. Osasun-arrazoia salbuespena izango da.

Txapak 38mm-ko diametrokoak izango dira.

Poltsak 100% algodoizkoak izango dira, 140 gr/ m2-koak.

• Los soportes no serán plastificados y en caso de proteger las portadas, se realizará con barniz en base acuosa.

2) Rotulación de vinilado del remolque: Se realizará en vinilo para vehículos fundido de 0,055mm con laminado de 0,030mm, impresión con tintas látex.

3) Servilletas:

• Modelo pequeño: dos capas Impresa a una tinta pantone.

• Modelo grande: una capa. Impresa a una tinta pantone.

4) Lonas para el Ayuntamiento y la jaima. Se podrá realizar de alguna de las siguientes maneras:

• Sin microperforado: Pvc Frontlit 510 gr. FR, con refuerzo perimetral, ojales metálicos, impresa a 1440dpi, tintas uvi

• Con microperforado: Pvc Microperforada 350 gr. FR B1/M2, con refuerzo perimetral, ojales metálicos, tintas uvi.

5) Material Promocional

El material promocional no deberá estar embalado unitariamente, siendo una excepción el motivo sanitario.

Las chapas serán de 38 mm de diámetro.

Las bolsas serán de 100% algodón, de 140 gr/m2.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Toldbo Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

6) Web-euskarria

Web-edukia CMS batera irauli behar da, oso ondo eutsita eta mantenduta. Webgune osoa (cms/estilo/plugins) azken bertsioetara eguneratuta eduki behar da beti, segurtasun-arrazoiengatik.

Diseinua *responsive* izan beharko da (edozein bereizmen eta gailura egokigarria). Era berean, mahai gaineko ordenagailuen, tableten eta mugikorren araberakoa izan beharko da.

Material guztiak bi hizkuntza ofizialetan euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskara lehenetsiz, eta, zerbitzu sustatzaileak hala erabakitzen duenean, ingelesez eta frantsesez ere bai. Zerbitzu sustatzaileak egingo ditu itzulpenak.

Esleipendunak arreta berezia jarri beharko du euskarri-materiala ahalik eta modu eraginkorrenean bana dadin, materiala ahalik eta gutxien gal dadin xede-publikoarengana

6) Soporte Web

El contenido web debe ser volcado a un CMS ampliamente soportado y mantenido. Toda la web (cms / estilos / plugins) debe mantenerse siempre actualizada a sus últimas versiones por motivos de seguridad.

El diseño debe ser *responsive* (adaptable a cualquier resolución y dispositivo), así como ajustable a ordenadores de sobremesa, tablets y móviles.

Todos los materiales se realizarán en los dos idiomas oficiales, en euskera y castellano priorizando el euskera y, cuando el servicio promotor así lo decida, también en inglés y francés. Las traducciones las realizará el Servicio promotor.

La empresa adjudicataria deberá tener especial cuidado para que el material de soporte se distribuya lo más eficazmente posible para que el material llegue al público objetivo con la menor pérdida posible.

II. SORTA: Kanpainaren edukiak transmititzea, informatzea eta sentsibilizatzea.	**LOTE II: Transmisión, Información y sensibilización sobre los contenidos de la campaña.**
Enpresa esleipendunak eginkizun hauek izango ditu:	La empresa adjudicataria deberá realizar las siguientes funciones:
- **Kontzientziazio, sentsibilizazio eta desbideratze lanak** egitea, batez ere gazteen artean, indarkeria matxisten aurkako jarrera	- **Realizar labores de concienciación, sensibilización y derivación**, especialmente entre la gente joven, para impulsar actitudes proactivas

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

proaktiboak bultzatzeko.

Sentsibilizazio-lan horiek honela egingo dira:

A) 2 profesionalek **informazio-gune ibiltari bat (atoia)** kudeatu eta bideratuko dute, finkatutako jai egunetan, hainbat orduz (anexoan orduak eta egunak zehaztuta daude). Informazio-gune ibiltari hori udalak utziko duen egitura batean (atoia) gauzatuko da, eta behar diren altzariak izango ditu. Bi aulki eta argiak dituen atoi bat.

Informazio-gune ibiltari hori leku ikusgarri batean jarriko da, eta zerbitzu sustatzaileak zehaztuko du.

Informazio eta desbideratze gune ibiltaria aurreikusten den jaien gutxi gorabeherako zerrenda: Donostia, Eguna (urtarrila), San Juan (ekaina), Jazzaldia (uztaila), Zipotz jaiak (Gros) (uztaila), Karmengo Jaiak (portua) (uztaila), Euskal Jaiak (iraila), Porrontxoak (egia) (iraila), Hallowen (azaroa), San Tomas (abendua).

Atoi horretan, profesionalek hurbilduko diren pertsonak artatu, prebentzioari, indarkeria matxisten aurrean jarduteari eta eremu horretako baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa eman eta sentsibilizatu egingo dituzte.

contra las violencias machistas.

Estas labores de sensibilización se realizarán de las siguientes maneras:

a) 2 profesionales realizarán la gestión de **un punto de información itinerante (Remolque)** y derivación, durante varias horas los días festivos establecidos (definidas las horas y los días en el anexo). Este punto de información itinerante se llevará a cabo en una estructura facilitada (remolque), por el ayuntamiento, que tendrá los mobiliarios necesarios. Un remolque con dos sillas y luces.

Este punto de información itinerante se colocará en una ubicación visible y será determinado por el servicio promotor.

Estas son las fiestas en las que se prevé el punto itinerante de información y derivación: Día de San Sebastian (enero), San Juan (junio), Jazzaldia, (julio), Zipotz Jaiak (Gros) (julio), Karmengo jaiak (portua) (julio), Euskal Jaiak (septiembre), Porrontxoak (Egia) (septiembre), Hallowen (noviembre), Santo Tomas (diciembre).

El trabajo de las profesionales en este remolque consistirá en atender a las personas que se acerquen, sensibilizar y dar información sobre prevención, actuación ante las violencias machistas y sobre recursos y servicios en este ámbito.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

B) 2 profesionalek Aste Nagusiko 108 ordutan instalatutako jaima batean etengabeko informazio- eta deribazio-puntu bat kudeatuko dute. Jai horietan, gainera, 45 orduko kale-sentsibilizazioa egingo da astean zehar.

B) 2 profesionales realizarán la gestión de un **punto de información permanente y derivación en una Jaima** instalada durante 108 horas de la Semana Grande. Durante estas fiestas además se realizará una "sensibilización de calle" de 45 horas durante la semana.

Ordutegi zehatza organo sustatzaileak zehaztuko du, espazio publikoan gazteek duten presentzia handiagoa oinarri hartuta.

El horario concreto del servicio será definido por el órgano promotor en base a la mayor presencia de jóvenes en el espacio público.

Informazio-gune honetan zein kaleko lanean, pertsonak artatuko dira, prebentzioari, indarkeria matxisten aurrean jarduteari eta eremu horretako baliabide eta zerbitzuei buruzko sentsibilizazioa eta informazioa emango da.

Tanto el trabajo en este punto de información como el trabajo de calle consistirá en atender a las personas, sensibilizar y dar información sobre prevención, actuación ante las violencias machistas y sobre recursos y servicios en este ámbito.

C) Era berean, enpresa esleipendunak materiala banatzeko lan soilak egingo ditu: ostalaritzarako euskarria, ezpainzapiak eta sustapen-materiala. Banaketa zerbitzu sustatzaileak aurrez zehaztutako hiriko ostalaritza-establezimenduetan egingo da, eta banatuko diren behin betiko kopuruak ere zehaztuko ditu, betiere establezimenduen edukieraren proportzioan. Gutxi gorabehera, eskuorri bat emango da establezimendu bakoitzeko, 250 eskuzapi handi eta 500 ahozapi txiki eta 10 promozio-material.

C) Asimismo la empresa adjudicataria realizará simples labores de distribución de material que consistirá en un soporte para hostelería, servilletas y material promocional. La distribución se realizará en los establecimientos de hostelería de la ciudad predeterminados por el servicio promotor, quien definirá también las cantidades definitivas a distribuir, siempre de manera proporcional al aforo de las mismas. Aproximadamente se entregará un folleto por establecimiento, 250 ejemplares de servilletas grandes y 500 ejemplares de servilletas pequeñas y 10 ejemplares de material promocional.

Esleipendunak arreta berezia jarri beharko du euskarri-materiala ahalik eta modu

La empresa adjudicataria deberá tener especial cuidado para que el material de soporte se

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

eraginkorrenean bana dadin, materiala ahalik eta gutxien gal dadin xede-publikoarengana.

distribuya lo más eficazmente posible para que el material llegue al público objetivo con la menor pérdida posible.

Prestazioari dagokienez, nahiz eta II. eranskinean zenbatespen bat zehazten den, kokapen zehatzak, behar diren gutxieneko langileak eta informazio-gune ibiltariko (atoia) zein iraunkorreko (jaima) gainerako zehaztapenak Berdintasun Sailak erabakiko ditu, eta bertatik izapidetuko dira dagozkion baimenak.

En relación a las prestaciones, si bien en el Anexo II se detalla una estimación, las ubicaciones concretas, el personal mínimo necesario y demás concreciones tanto del punto de información itinerante /remolque) como del permanente (jaima) se decidirán desde el Departamento de Igualdad, desde donde se tramitarán las autorizaciones pertinentes.

Enpresa esleipendunak, lanaren amaieran, artatutako pertsonen inguruko memoria bat aurkeztu beharko du bi hizkuntza ofizialetan datu kuantitatibo eta kualitatiboekin: generoa, adina, jatorria, hizkuntzen erabilera eta kasuen deribazioa aipatuz hala nola kontsumitutako banaketa-materialaren kopurua (horretarako, ekoitzi beharreko materiala hurrengorako birkalkulatu behar da) .

La empresa adjudicataria deberá presentar al final del trabajo una memoria con datos cuantitativos y cualitativos en los dos idiomas oficiales sobre las personas atendidas; el género, edad, origen, el uso de los idiomas, la derivación de los casos y el número de material de distribución consumida (para en base a ello recalcular el material a producir para la siguiente edición).

III. SORTA - Instalazioak	**LOTE III - Instalaciones**

3. sortaren epresa esleipendunak honako eginkizunak egin beharko ditu:

La empresa adjudicataria del lote 3 deberá realizar las siguientes tareas:

-Instalazio iraunkorra alokatu eta jartzea ostiraletik (Aste Nagusia hasi bezperan) igandera arte (Aste Nagusiko azken egunaren biharamunean).

- Alquiler y colocación de la instalación permanente (jaima) desde el viernes (víspera del inicio de Semana Grande) hasta el domingo (día después del último día de Semana Grande).

Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Instalazioan 3 sortako esleipendunak banketak, erakusmahaia eta argiak jarriko ditu eta irisgarria izango da.

Espazio horrek bolumen nahikoa behar du, hurbiltzen diren pertsonei arreta emateko konfiantza- eta segurtasun-espazio intimo bat gaitu ahal izateko, batez ere jasandako indarkerien esperientziak kontatu behar dituzten emakumeei. Horregatik guztiagatik, pertsona horiei arreta emateko espazio bereizi bat bermatu beharko da, beste kontsulta/kexa batzuei erantzuten zaienaz gain. Espazio horrek gutxienez 5x5 metroko neurriak izango ditu, erabiltzaileen intimitatea bermatuko duen banaketa-bionboa, 2 taburete mostradore bat eta hiru aulki, baita elektrizitatearen konexioa ere. Empresa esleipenduak hornituko du jaima elementu guzti hauekin eta elektrizitate konexioak ere egingo ditu, beharrezko baimen guztiak lortuz.

- Udalak emango duen atoia lekuz aldatzea eta instalatzea.

3. sortaren enpresa esleipendunak atoia (I eranskinean ezarritako neurriak izango dituena) Zerbitzu Sustatzaileak adieraziko dituen informazio ibiltariko eta deribazioko guneetara eraman beharko du.

Esleipendunak atoiaren instalazio elektrikoa egingo du, baita beharrezko konexioak ere, eta beharrezko baimenak eskatu beharko ditu.

La empresa adjudicataria del Lote 3 equipará la instalación por dentro con banquetas, mostrador y luces y será accesible.

Este espacio requiere de un volumen suficiente en el que se pueda habilitar un espacio íntimo de confianza y de seguridad para poder atender a las personas que se acerquen, sobre todo aquellas mujeres que necesiten contar las experiencias de violencias sufridas. Por todo ello se deberá garantizar un espacio diferenciado para atender a estas personas, independiente de aquel en el que se atiendan otras consultas/ quejas. Dicho espacio contará al menos de unas medidas de 5x5 metros, un biombo de separación que garantice la intimidad de las usuarias, 2 taburetes un mostrador y 3 sillas, así como la conexión de electricidad. La empresa adjudicataria proveerá todos estos elementos y se encargará de la conexión de electricidad así como de los permisos y autorizaciones necesarios.

- Traslado e instalación del remolque facilitado por el ayuntamiento.

La empresa adjudicataria del lote 3 deberá trasladar el remolque (que tendrá las medidas establecidas en el Anexo I) a los puntos de información itinerante y derivación señalados por el Servicio Promotor.

La empresa adjudicataria realizará la instalación electrica del remolque, así como las conexiones necesarias, debiendo solicitar los permisos y autorizaciones necesarios.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

3. BEHARREZKO LANGILEAK

SORTA GUZTIETAN:

Sorta bakoitzeko enpresa esleipendunak pertsona koordinatzaile bat izendatu beharko du. Pertsona hori izango da Donostiako Udalarekin harremana izango duen bakarra. Halaber, koordinatzailea izango da enpresako langileei agindu eta jarraibideak emateko gaitasuna izango duena.

2 sortari dagokionez, koordinatzaileak ondoren eskatzen den profesionaletako bat izan beharko du.

I. SORTA

Diseinuaren arduradunak gutxienez ondorengo formazioa izango du: gutxienez arte grafikoetan "Oinarrizko Lanbide Heziketa" edo lanbide prestakuntza baliokidea eta 45 orduko gutxieneko prestakuntza duena emakumeen eta gizonen berdintasunean.

II. SORTA

4 profesionalek osatuko duten profesional-taldeak jarraian zehazten den profil jakin bat izan behar du, zerbitzua modu egokian egin ahal izateko; izan ere, iritsi nahi zaien kolektiboak sentsibilizatu eta kontzientziatuko dituzte (neska gazteak, mutil gazteak eta pertsona helduak)

Bai espazioetan bai **ibiltarian (atoian), bai Aste Nagusiko espazio iraunkorrean (jaima)** ere, enpresa esleipendunak 32 urtetik beherako bi

3. PERSONAL NECESARIO

EN TODOS LOS LOTES:

La empresa adjudicataria de cada lote deberá designar una persona coordinadora con quien se relacionará únicamente el Ayuntamiento de San Sebastián y a quien corresponderá la facultad de impartir directamente las órdenes e instrucciones de trabajo al resto de trabajadores/as de la empresa adjudicataria.

En el lote 2, la persona coordinadora será una de las profesionales que se solicitan a continuación.

LOTE I

Se requiere una persona encargada del diseño, que tenga una formación mínima de "Formación Profesional Básica en artes gráficas" o cualificación profesional equivalente y formación en igualdad de mujeres y hombres de 45 horas.

LOTE II

El equipo se compondrá de cuatro profesionales que requieren tener un perfil concreto, que a continuación se explicita, para poder realizar el servicio de manera adecuada, ya que van a sensibilizar y concienciar a los distintos colectivos a los que se quiere llegar (chicas jóvenes, chicos jóvenes y personas adultas).

Tanto **en el espacio itinerante (remolque), como en el espacio permanente de Semana Grande (jaima)**, la empresa adjudicataria deberá adscribir

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

emakume atxiki beharko ditu, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Adar sozial eta/edo juridikoen gradua, eta/edo artea eta giza zientziak eta osasun-zientziak, edo titulazio edo lanbide-prestakuntza baliokidea.
- Izan dezala ere:

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta/edo indarkeria matxisten prebentzioaren arloko prestakuntza-ikastaroa, gutxienez 150 ordukoa.

Edo gutxienez bi urteko lan-esperientzia berdintasun-teknikari gisa

- Euskara, C1 maila.

dos mujeres menores de 32 años que cumplan con los siguientes requisitos:

-Un grado de ramas sociales y/o jurídicas y/o arte y humanidades y ciencias de la salud, o titulación o cualificación profesional equivalente.

- Que tenga también

Curso de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres y/o prevención de las violencias machistas de al menos 150 h. de duración

O experiencia laboral mínima de dos años como técnica de igualdad

- Euskara, nivel C1.

Horrez gain, kaleko sentsibilizazioa egiteko, enpresa esleipendunak 32 urtetik beherako beste bi emakume atxiki behar ditu, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Autodefentsa feministako tailerrak egin izana, gutxienez 12 ordukoak edo indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko ikastaroak, gutxienez 12 ordukoak.
- Euskara, C1 maila.

Asimismo, para la realización de la **sensibilización de calle** la empresa adjudicataria deberá adscribir otras dos mujeres menores de 32 años que cumplan con los siguientes requisitos:

-Haber realizado talleres de autodefensa feminista con una duración mínima de 12 horas o cursos sobre prevención de la violencia machista con duración mínima de 12 horas.

- Euskara, nivel C1.

III. SORTA

Ez da gutxieneko langilerik eskatzen sorta honetako lanak egiteko

LOTE III

No se exige un personal mínimo para realizar las tareas de este lote.

4. EZOHIKO EGOERAK

Kontratuaren gauzatze-epe osoan zehar, enpresa esleipendunak une bakoitzean indarren dagoen araudiak xedatutako osasun-neurriak betetzeko

4.- SITUACIONES EXCEPCIONALES

Durante todo el periodo de ejecución del contrato, la empresa adjudicataria estará obligada al cumplimiento de las medidas sanitarias

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

betebeharra izango du eta zehazki Covid-19 birusaren hedapena geldiarazteko aurrikusitakoak (maskarak, gel hidroalkoholikoa, gutxieneko distantzia, etab.)

establecidas en la normativa vigente en cada momento, y concretamente aquellas previstas para frenar la propagación del virus Covid-19 (mascarillas, gel hidroalcohólico, distancia mínima, etc.).

Donostian, 2022ko martxoaren 10ean

Silvia carballo Paz
Berdintasun, lankidetza, Giza Eskubide eta Kultur Aniztasunaren atalaren burua
Jefa de sección de Igualdad, Cooperación, Derechos Humanos y Diversidad Cultural

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Toki Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

I ERANSKINA/ ANEXO I
ATOIARI DAGOZKION NEURRIAK
TAMAÑOS RELATIVOS AL REMOLQUE

ERROTULUEN NEURRIAK

Neurriak honakloak izango dira:

- Atzeko errotulua 3,110 mm x 2,550 mm, alboetako bi leiho ertainekin (480 mm x 540 mm).

- Aurrealdeko errotulua 3,110 mm eta 2,550 mm, alboko bi leiho txikirekin (335 mm x 540mm) eta erdiko leiho handi batekin (1545 mm x 960 mm)


- Alboetako, ezkerreko eta eskuineko errotuluak, 1.500 mm-koak eta 2,550 mm-koak.

TAMAÑOS DE LOS RÓTULOS

Los tamaños **de los rótulos** son los siguientes:


- Rótulo trasero 3,110 mm x 2,550 mm con dos ventanas laterales medianas (480 mm x 540 mm).
- Rótulo frontal 3,110 mm y 2,550 mm, con dos ventanas laterales pequeñas (335 mm x 540mm) y una ventana central grande (1545 mm x 960 mm)
- Rótulos laterales, izquierda y derecha de 1500 mm por 2,550 mm.


ATOIAREN NEURRIAK
TAMAÑOS DEL REMOLQUE




DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián







DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ANEXO II

Kontratuan zehar aurreikusten diren beharrak

Previsiones de necesidades para la duración del contrato

1 SORTA/LOTE 1

Eraso sexisten aurkako sentsibilizazio-materiala diseinatzea eta ekoiztea Diseño y producción de material sensibilización contra agresiones sexistas	
	ejemplares
Euskarri fisikoaren diseinua Diseño soporte fisico	
Neska eskuorria Folleto chica	5000
Mutila eskuorria Folleto chico	5000
Hiritarren eskuorria Folleto ciudadania	80000
Hosteleritza eskuorria Folleto hosteleria	**2000**
Ahozapi txikiak Serbilletas pequeñas	96000
Ahozapi handiak Servilletas grandes	8500
Telefono txartelak Tarjetas telefono	5.000
Txapak Chapas	5.000
Poltsak Bolsas	5.000
Lona permante Ayuntamiento producción	1
Lonas jaima 5*5	1
Rótulo remolque exterior	1

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad
Okendo, 9 | Tel. 010 - 943483464 | berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20004 Donostia / San Sebastián

2 eta 3 SORTAK / LOTES 2 y 3

	ORDU KOPURUA PROFESIONALEKO nº horas por **profesional**		**PROFESIONAL KOPURUA/** numero de profesionales		**Tabernetan** materiala banatzeko Distribución de material en bares
	Informazio guneetan (jaima eta atoian)/ En puntos de información (jaima y remolque)	Kalean/ En la calle	Informazio guneetan (jaima eta atoian)/ En puntos de información (jaima y remolque)	Kalean en la calle	Zenbat taberna diren Nº de bares
Urtarrila/ enero					
19 Donostia Eguna bezpera (remolkea) Vispera San Sebastian	4		2		200
Ekaina					
23 San Juanak (remolkea)	4	4	2	2	300
Uztaila					
Jazzaldia (Atoia/ Remolque)	12		2		
Zipotz jaiak (Gros) (Atoia) larunbat arratsaldean	4		2		
Karmengo jaiak (Portua) (Atoia) larunbat arratsaldean	4		2		
Abuztua					
Aste Nagusia (Jaima) Semana Grande (Jaima)	96	45	2	2	300
Iraila					
Euskal Jaiak eta estropadak (Atoia eta kaleko hezitzaileak) Fiestas Vascas y Regatas	8	14	2	2	200
Porrontxo Jaiak (Egia)	12		2		50
Azaroa					
Haloween (Atoia/ Remolque)	4		2		
Abendua					
Santo Tomas (Atoia/ Remolque)	5	2	2	2	300
osotara	**153**	**65**	**20**	**8**	**1350**

Ana Txurruka Etxezarreta

Berdintasun Teknikaria
Técnica de Igualdad